

# EUSTAT - BJAko aldagai nagusien laburpena

## BALORAZIOA

Nahiz eta jarduerak igoera apala izan duen azken hiruhilekoan, langabeziaren jaitsiera populazio aktiboaren murrizketagatik etorri da. Okupazioa hazi egin da emakumezkoen artean eta murriztu gizonezkoen artean; egoera honek langabezia gizonezkoen artean haztea eta emakumezkoen artean nabarmen jaitea ekarri du. Azken hiruhilekoan eraikuntza sektorea izan da hazi den bakarra; zerbitzu sektorea konstante mantendu da, industria sektoreak murrizketa apala izan du eta lehen sektorea nabarmen murriztu da. Lurralde historikoen arabera, Bizkaian soilik hazi da okupazioa, baina langabezia nabarmen murriztu da Araban eta Gipuzkoan. Langabezia tasa %11,1ekoa da, 2011 urte amaierakoaren pare; ez da sexuen artean bereizketarik nabarmentzen.

Urteko balantzeak erakusten du lan merkatuan 12.100 landun gehiago daudela, eta 15.400 langabe gutxiago. Urte honen amaierako landun eta langabe kopurua 2011 urteko amaierakoaren antzekoa da. Hala ere, oraindik, 2008 urteko hirugarren hiruhilekoan baino 75.800 landun gutxiago daude, maximo historikoa; langabeak 77.600 geahigo dira data horretakoekin alderatuz.

Bizkaiak jarraitzen du egoera okerrenean, enplegu tasa baxuena baitu eta langabezia tasa altuena. Gipuzkoan, ordea, enplegu tasa altuena erregistratzen da eta langabezia tasa baxuena. Araba erdian kokatzen da.

## DATU OROKORRAK

Hiruhileko honetan EAEko enplegu tasa %66,74 izan da, hau da, %69,84 gizonezkoen artean eta %63,61 emakumezkoen artean, sexuen arteko diferentzia 6,2 puntukoa delarik. Hiruhileko honen amaieran 915.100 enplegatu zeuden, 479.800 gizonezko eta 435.200 emakumezko. Langabezia tasa, aldiz, %11,07 izan da, txikiagoa gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (%10,78 gizonezkoetan eta %11,36 emakumezkoetan, hau da, 0,6 puntuko aldea). Hiruhilekoaren amaieran 113.900 langabetu ziren, 58.000 gizonezko eta 55.800 emakumezko.

Lurralde historikoka, enplegu tasa baxuena Bizkaiak du (%65,51) eta altuena, aldiz, Gipuzkoak (%68,61), bien arteko diferentzia 3,1 puntukoa izanik. Hiruhilekoaren amaieran 137.300 enplegatu dira Araban, 470.800 Bizkaian eta 306.900 Gipuzkoan. Langabezia tasa dela eta, Bizkaia da tasa altuena duen lurraldea (%12,77) eta Gipuzkoa, berriz, baxuena duena (%8,42), bien arteko aldea 4,4 puntukoa da. Araban 16.600 langabetu zeuden, Bizkaian 68.900 eta amaitzeko, 28.200 Gipuzkoan.

Jarduera sektoreen arabera, pertsona enplegatuei dagokienez, lehen sektorea da pisu gutxien duena, hau da, bertan 10.000 enplegatu daude, okupatu guztien %1,09, hain zuzen. Pisu gehien duen sektorea, aldiz, zerbitzuen sektorea da, okupatuena %71,59, bertan 655.100 enplegatu dira. Bestalde, industria sektorean 200.300 pertsona enplegatzen dira eta eraikuntza sektorean 48.800.

Adin tarteen arabera, enplegu tasa altuena 35-44 urte arteko adin tarteari dagokio (%81,89), 275.800 enplegatu, eta enplegu tasa txikiena, aldiz, 16-24 urte arteko adin tarteari dagokio (%17,67), 29.000 enplegatu. Langabezia tasari dagokionez tasa txikiena erakusten duen adin tartea 45-54 urte artekoena da, %9,21 tasa (27.800 langabetu), aldiz, langabezia tasa altuena duen adin tartea, berriz, 16-24 urte artekoena da, %17,14eko tasa (6.000 langabetu).

## HIRUHILEROKO BILAKAERA

Hiruhileko honetan okupazioa hazi egin da 900 pertsonetan, %0,1. Emakumezkoen artean 6.900 pertsonako igoera izan da (%1,6) eta gizonezkoen artean, berriz, 6.200 pertsonako jaitsiera (%-1,3). Langabezia, aldiz, murriztu egin da 5.100 langabetuetan, 4,3%. Emakumezkoen artean jaitsiera 6.600 lagunekoa izan da (%-10,6) gizonekoetan, ordea, 1.400 laguneko igoera izan da (%2,5).

Lurraldeen artean langabeziari dagokionez bilakaera hobereena izan duena Araba izan da, bertan jaitsiera izan delarik, %12,63ko jaitsiera, hain zuzen. Bilakaera okerrenea Bizkaiak izan du, non %-0,14 jaitsi den. Okupazioa dela eta, bilakaerarik onena Bizkaiak izan du, non igoera %0,43 izan da. Bilakaera okerrenea, berriz, Arabak izan du non %0,94 jaitsiera izan duen.

Jarduera sektoreen arabera bilakaera hobereena izan duena eraikuntza sektorea izan da, okupazioa 2.100 pertsonatan hazi da; bilakaera apalena, berriz, lehen sektoreak izan du, okupazioa 700 pertsonatan murriztu da bertan.

Adin tarteen arabera, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereena izan duen adin tartea 55-64 urte artekoa izan da, bertan okupazioa %1,95 hazi delarik (3.200 pertsona gehiago). Bilakaera okerrenea 16-24 urte arteko adin tartea izan du, bertan okupazioa %16,18 murriztu da. Langabezia tasari dagokionez, 16-24 urte arteko adin tartea izan da ondoen eboluzionatzen duena, hau da, %26,83ko jaitsiera (2.200 langabetu gutxiago) izan du. Bilakaera apalena izan duen adin tartea 25-34 urte artekoa izan da, bertan langabezia %12,2 hazi baita.

## URTEARTEKO BILAKAERA

Aurreko urteko datuekin alderatuz gero okupazioa hazi egin da 12.100 pertsonatan, %1,3 hain zuzen. Emakumezkoen artean igoera 6.600 lagunekoa izan da (%1,5), gizonezkoen artean, aldiz, igoera 5.400 lagunekoa izan da (%1,1). Hala, langabezia murriztu egin da 15.400 langabetu, %11,9. Emakumezkoen artean jaitsiera 7.400 langabetukoa izan da (%-11,7), gizonekoetan, ordea, jaitsiera 8.200 langabetukoa izan da (%-12,4).

Lurraldeka, langabeziari dagokionez, bilakaerarik hobereena izan duena Gipuzkoak izan du %23,37ko jaitsierarekin. Bilakaera apalena Arabak izan du, %0,6 murriztu delarik langabezia. Okupazioa dela eta, bilakaera hobereena Gipuzkoak izan du, non okupazioa %2,2 hazi den. Bilakaera apalena, berriz, Arabak izan du non %-0,07 murriztu den.

Sektoreen arabera, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereena izan duena industria sektorea izan da non okupazioa 12.600 enpleguetan hazi den eta bilakaerarik apalena, berriz, zerbitzuen sektoreak izan du, enplegu kopurua 3.000 enplegutik murriztu delarik.

Adin tarteka, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereena izan duen adin tartea, aurreko urtearekin alderatuz gero, 45-54 urte artekoa izan da, bertan okupazioa %2,47 hazten delarik (6.600 enplegatu gehiago). Bilakaera apalena izan duen adin tartea, aldiz, 25-34 urte artekoa izan da, bertan okupazioa %0,43 murriztu delarik. Urtearteko langabezi tasaren bilakaerari dagokionez, 16-24 urte arteko adin tartea izan da bilakaera hobereena izan duena %36,17ko jaitsiera batekin (3.400 langabetu gutxiago). Bestalde, bilakaera apalena izan duen adin tartea 55-64 urte artekoa izan da, bertan langabezia %9,2 hazi baita.

**DATU OROKORRAK****SEXUAREN ARABERA**

		Tasa	Guztira
Okupazioa	guztira	66,74	915.100
	gizonezkoak	69,84	479.800
	emakumezkoak	63,61	435.200
Langabezia	guztira	11,07	113.900
	gizonezkoak	10,78	58.000
	emakumezkoak	11,36	55.800

**LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA**

		Tasa	Total
Okupazioa	Araba	66,88	137.300
	Bizkaia	65,51	470.800
	Gipuzkoa	68,61	306.900
Langabezia	Araba	10,79	16.600
	Bizkaia	12,77	68.900
	Gipuzkoa	8,42	28.200

**ADIN TARTEAREN ARABERA**

		Tasa	Total
Okupazioa	guztira	66,74	915.100
	16-24 urte	17,67	29.000
	25-34 urte	74,42	161.200
	35-44 urte	81,89	275.800
	45-54 urte	80,18	274.200
	55-64 urte	55,74	167.500
Langabezia	guztira	11,07	113.900
	16-24 urte	17,14	6.000
	25-34 urte	15,02	28.500
	35-44 urte	10,54	32.500
	45-54 urte	9,21	27.800
	55-64 urte	10,19	19.000

**OKUPAZIOA SEKTOREAREN ARABERA**

		Ocupados	%
Datu orokorrak	lehen sektorea	10.000	1,09%
	industria	200.300	21,89%
	eraikuntza	48.800	5,33%
	zerbitzuak	655.100	71,59%

hiruhilabetea	lehen sektorea	saldo	-700
		evol %	-6,54%
	industria	saldo	-400
		evol %	-0,20%
	eraikuntza	saldo	2.100
		evol %	4,50%
zerbitzuak	saldo	-200	
	evol %	-0,03%	
urtea	lehen sektorea	saldo	600
		evol %	6,38%
	industria	saldo	12.600
		evol %	6,71%
	eraikuntza	saldo	1.000
		evol %	2,09%
	zerbitzuak	saldo	-3.000
		evol %	-0,46%

BILAKAERA			Paro	Ocupación	Actividad
<b>GUZTIRA</b>					
hiruhilabetea	saldo		-5.100	900	-4.200
	evol %		-4,29%	0,10%	-0,41%
urtea	saldo		-15.400	12.100	-3.300
	evol %		-11,91%	1,34%	-0,32%
<b>SEXUA</b>					
hiruhilabetea	gizonezkoak	saldo	1.400	-6.200	-4.800
		evol %	2,47%	-1,28%	-0,88%
	emakumezkoak	saldo	-6.600	6.900	300
		evol %	-10,58%	1,61%	0,06%
urtea	gizonezkoak	saldo	-8.200	5.400	-2.800
		evol %	-12,39%	1,14%	-0,52%
	emakumezkoak	saldo	-7.400	6.600	-800
		evol %	-11,71%	1,54%	-0,16%
<b>LURRALDE HISTORIKOA</b>					
hiruhilabetea	Araba	saldo	-2.400	-1.300	-3.700
		evol %	-12,63%	-0,94%	-2,35%
	Bizkaia	saldo	-100	2.000	1.900
		evol %	-0,14%	0,43%	0,35%
	Gipuzkoa	saldo	-2.600	0	-2.600
		evol %	-8,44%	0,00%	-0,77%
urtea	Araba	saldo	-100	-100	-200
		evol %	-0,60%	-0,07%	-0,13%
	Bizkaia	saldo	-6.800	5.500	-1.300
		evol %	-8,98%	1,18%	-0,24%
	Gipuzkoa	saldo	-8.600	6.600	-2.000
		evol %	-23,37%	2,20%	-0,59%
<b>ADIN TARTEAK</b>					
hiruhilabetea	16-24 urte	saldo	-2.200	-5.600	-7.800
		evol %	-26,83%	-16,18%	-18,22%
	25-34 urte	saldo	3.100	-600	2.500
		evol %	12,20%	-0,37%	1,34%
	35-44 urte	saldo	-200	-8.400	-8.600
		evol %	-0,61%	-2,96%	-2,71%
	45-54 urte	saldo	500	5.100	5.600
		evol %	1,83%	1,90%	1,89%
	55-64 urte	saldo	-1.100	3.200	2.100
		evol %	-5,47%	1,95%	1,14%
urtea	16-24 urte	saldo	-3.400	600	-2.800
		evol %	-36,17%	2,11%	-7,41%
	25-34 urte	saldo	-5.500	-700	-6.200
		evol %	-16,18%	-0,43%	-3,16%
	35-44 urte	saldo	-3.300	300	-3.000
		evol %	-9,22%	0,11%	-0,96%
	45-54 urte	saldo	-4.400	6.600	2.200
		evol %	-13,66%	2,47%	0,73%
	55-64 urte	saldo	1.600	3.800	5.400
		evol %	9,20%	2,32%	2,98%

Iturria: Eustat -BJA. LANBIDErantzako fitxategi zehatza

(\*) Zenbait datu zertxobait aldatzen dira EUSTATEk argitaratutako datuekin alderatuz gero biribildu egin direlako jasotako datuak. Horrezaz gain, aldaketa nabarmen gehiago ere ikus daitezke; horren arrazoia da dokumentu honetan ez daudela jasoak, hiruhileko bakoitzaren datuak argitaratu ondoren, EUSTATEk jasotze irizpideen gainean berriro egindako kalkulua.

Elaborazioa: LANBIDE - Kabinete Teknikoa